

KULTURA ETA NORTASUNA LAN TALDEA

Eguna eta ordua: 2013-01-25, Kultur Etxea, 19:30-21:10

Gaia: Kirola

Partaide kopurua:

- 20 pertsona (5 emakume eta 15 gizon).
- Adin tartea: 30 baino gutxiago 5; 31-60 artean 12 ; 60tik gora 3.
- Teknikariak: 1 (Euskara)
- Zinegotziak: 1 (Kirola)

Gai-ordena:

1. Sarrera, aurreko saioaren errepaso
2. Aurreko aktaren onarpena eta aktalari berria izendatzea
3. Kirolaren inguruko diagnosiarekin jarraitzea
4. Hurrengo saioaren gai ordena eta eguna zehaztu
5. Ebaluazioa

Gaiak eta komentatutakoa:

Aurreko bileran hasi genuen diagnostikoarekin jarraitu dugu.

Aurreko bileran Kirolaren gaia lantzen hasi ginen parte hartze prozesuko kurtso honetako lehen bileran. Bertan, 6 pertsona bildu ginen, eta Kirolaren inguruko diagnosi bat egiten hasi ginen. Horretarako proposatu genuen dinamizazioa honakoa izan zen: txoko edo gune ezberdinak jarri genituen gelan zehar, txoko bakoitzak izenburu/gai bat zeukalarik: emakumea eta kirola, udal kirol eskaintza... 15 minutuko tartea utzi genuen txoko bakoitzean gure ekarpenak egiteko post-it-en laguntzaz.

Gaurkoan hurbildu diren pertsonak talde txikietan banatu eta aurreko bileran landutakoa garatzera gonbidatu dira. 3 talde osatu eta talde bakoitzari 3 gai eman dizkiogu. Gai bakoitzaren inguruko hausnarketa egiteko 10 min izan dituzte. Gai guztiak landu ondoren talde handian aurkeztu dira. Gai bakoitza aurkeztu ondoren, 5 minutuko txanda zabaldu da nahi zuen guztiak ekarpenak egiteko.

Hau da gai bakoitzean komentatu dena:

KIROL ELKARTEAK:

- Elkarateak badagoz
- Elkarteen arteko komunikazio falta

- Elkarteen egoera orokorrean ona.
- Egoera ekonomikoari dagokionez, diru falta sumatzen da.
- Honen aurrean lehen erabiltzen ziren ereduak erabiltzen hasi dira berriro: materiala trukatu, utzi,... Material trukaketa kirol batzuetan egin daiteke baina beste batzuetan ez.
- Egoera ekonomiko desberdina dute profesionalek eta ez-profesionalek.
- Elkarrekin egiten duten lan formatiboa oso handia da.
- Baliabide ekonomiko urrien aurrean alternatibak zeintzuk izan daitezkeen pentsatu beharko litzake.
- Udalari eskatzeko alternatiba hauek zeintzuk izan daitezkeen zerrendatu beharra: instalazioak uztea,...
- Elkarrekin batean parte hartzeak desgastea dakar bertan lanean dabilzanentzat.
- Jarduerak antolatzen dira elkarteen partetik baina jendearen erantzuna txikia izaten da (Adibidez mendi taldea).
- Nola egin herritarrak inplikatzeko?

KIROL JARDUERAK:

- Kirol jarduerak herritar guztiei zuzenduak izan behar dira: andra, gizon, ume, gaztetxo, gazte,... Elkarrekin batzuk badabilta lan honetan, beste batzuk hasteko asmoagaz.
- Zelan zabaltzea daiteke herrian kirol jardueren berri?
 - o Ate irekien eguna: ondo dago baina egun bakarrean geratzen da.
 - o Erakustaldiak
 - o Afitxeak hormatan
 - o Ahoz ahokoa
- Hainbat jarduera egiten dira: ziklokrosa, bizikleta bidean, ligakoak eta txapelketak,...
- Jarduera federatuez gain beste hainbat dagoz modu isolatuan, jarraipena beharko luketenak (ez urtean behineko jarraipena bakarrik).
- Kirol "txiki" edo minoritarioagoak direnak promozio handiagoa beharko lukete.
- Kirol batzuk beste batzuk baino askoz gehiago ezagutzen dira. Kirol mota batzuk ez dira kontuan hartzen.

- Zelan egin kirol hauen zabalpena egiteko?

KIROL PROFESIONALA:

- Kirol erreferenteen beharra kirola herrian promozionatzeko: herriko profesionalak eskoletan zaletasuna zabaltzeko.
- Herrian dauden kirolari profesionalak ez dira ezagutzen, hauek ezagutzera eman behar dira.
- Neska kirolarien erreferente beharra.
- Euskaldun kirolarien erreferenteen beharra. Erreferente diren kirolariei euskararen aldeko jarrera eskatu.

KIROLA ETA ESKOLA:

- Eskolarteko txapelketak antolatzen ziren lehen, orain ez.
- Multikirola ekintza egiten da, baina ez da gauza berbera. 10 urte arteko programa da, 3 ikastetxetan: futbola, eskubaloia, herri kirolak,... Asmoa omen dute gehiago ere egiteko.
- Egiten dena ez da nahiko ikusten.
- Harremana estutu beharra herriko ikastetxe eta kirol elkarten artean.
- Antolatzen diren programen adina zabaldu beharra dago, nagusiagoekin lantzen segitu behar da.

EMAKUMEA ETA KIROLA:

- Udal berdintasun politikarik badago arlo honetan?
- Ez dago emakumeei zuzenduta jarduerarik.
- Kirol batzuk mistoak dira, bestetan neska hutsez osatzeko moduko taldeak egon ahal dira (futbol,...).
- Agian kirol batzuetan mutilak erakartzeko propaganda berezirik ez da egin behar, baina igual merezi du neskak gehiago animatzea, batez ere kirol estereotipatueta parte hartzera animatzeko.
- Gaiaren inguruan hausnartu beharra, ez daukagu buruan eta ez dugu kontuan izaten.
- Herriko erreferentak erabiltzearen garrantzia azpimarratu da.

KIROLA ETA EUSKARA:

- Kirol munduan euskararen erabilera eskasa da.

- Monitoreei maila minimo bat exigitu eta gero beraiei lagundu kirol hiztegia lantzen. Inportantzia honi emna behar zaio, gure esku dagoelako.
- Euskara sailak kirol sailagaz plan bat edo hitzarmen bat du, puntu askogaz.
- Kirol elkarteei diru laguntzako gura badute euskara erabili behar dutew.
- Animo oihuak, euskarazkoak bultzatzea.
- Euskara/hizkera bentaja da kirol lehiaketetan, kontrarioak ez ulertzeko ze estrategia erabiltzen ari zaren. Balio ahal du euskara plus bat dela demostratzeko.
- Herriko erreferenteek publiko euskara ondo erabiltzea, eredugarria da.
- Athletic vs. Barca hizkuntza ereduak.
- Euskara teknikariaren ekarpena abenduak 14ko bileran: Kiroldegirako 3 urteko plana proposatu eta adostu da (Euskara saila-kirol patronatua). Ildo nagusiak:
 - o Hitzarmenetan hizkuntza irizpideak (monitoreak behar besteko gaitasuna lehentasuna).
 - o Erabiltzaileen ezagutza eta sentiberatasuna.
 - o Ikastaroetan hizkuntzen erabilerarako irizpideka (monitore eta erabiltzaileen ezagutzaren arabera).
 - o Monitoreen prestakuntzarako laguntza eta baliabideak.
 - o Kirol elkarteak: hitzarmenak (Gurien be bai), monitoreen prestakuntza, diru laguntzak eskuratzeko hizkuntza baldintza bete.
 - o Sentiberatasuna (Kalinpan panpina, kartelak, animo oihuak, txapak, potoak,..).
 - o 2009an diagnostikoa. Ondorengo lana.
 - o Elkarte nagusietan sakontzeko premia: entrenamendu eta jardueretarako hizkuntza, gizarte erantzukizuna, monitoreen prestakuntza (Koikili futbola adibidez).

KIROL EKIPAMENDUAK:

- Kirol ekipamenduak hobetu beharra.
- Behar handiak daude herriko ekipamenduetan: hermanuetan, kiroldegian,...
- Herri espazioak erabiltzearen garrantzia.
- Jose Dine ikastetxearen egoera hobetu beharra.

- Eraztun berde bat sortzeko beharra kirola praktikatu ahal izateko.

KIROLA ETA OSASUNA

- Elkarteei hau lantzeko aholkularitza eskaini beharko litzaioke.

KIROL UDAL POLITIKA:

- Udala eta elkarteen arteko harremanak estutu beharra. Udalaren partetik interes falta sumatzen da. Talde barruko gestioan eta antolakuntzan gora beherak emoten dira.
- Kirola bultzatu nahi bada koordinazio bat eman behar da.
- Udalak elkarteekiko interesa adierazi behar du.

Hurrengo bilerako eguna eta gai ordena:

Hurrengo bilera **otsailak 15ean ostirala, 19:30etan** egitea proposatu da eta gai ordena ondorengoa izango da:

- Gaur landutako diagnosia garbira pasata eramango da eta behar bada ekarpen gehiago gehitu.
- Gaiaren inguruan udalari egiteko proposamen zerrenda bat egiten hasiko gara.